

KATUOK ERPE ETA GEHIAGO

Kaixio laguntzarrak:

Ez neuko nik esango hirugarrena atarateko adorerik edo balorerik eukiko ehenik honet, baina hamen dago kalian zuon esku artian hirugarren zenbakia udabarriko lozen antzera... Dagoeneko ez zan egon biharko planeta honetan ni ez nabarik ezagutzen, baina, badaezpada, jakin egizue etxekuentzat Kurik naizela, eta kanpokuentzat eta karnetian Felis silvestris catus (Catusenekua). Eta aldizkari honetako izarra ni neu naizela. Ez dot orainguan errebista honetan gai nagusia izango danari buruz ezer esango, bakar-bakarrik, gurian beti esan dala zorionaren bila juan egin bihar dala eta zoritxarra, amaginarreben modura, deittu barik etorten dala. Zirkinik egin barik jatorku! Aurtengo eta sekulako notiziarik harrigarriena espele, zelan esaten da, espelolo, ezta, espeleologo horrek ekarri dabe. Armintxen topa dabezen grabauak ez ei dauke parekorik, baina gehien harritu zaituena legoiena dala entzun dot. Orain dala 14.000 urte be hamentxe bizi ginian primo! Bueno gu bakarrik ez, pinttoria eta pinttorinekuak be lekittarrak zirian, baina ez dakit ez genduzan jan. Zer egingo genduan ba? Egun santu guztian ibiltten zirian geure atzetik eta! Aspaldion barriz, primeran konpontzen gara sapiensakin (eurak pentsa!), errebista honetakuakin ezin hobeto. Egia esan, gure lehengusu nagusiak ez dabe oraindino gure manerak lortu, baina denbora kontua baino ez da. Beste 14.000 bat urte eta danok katu!

MIAUUUU.

Gloria, Patri et Filio gure katuak txilio; in secula seculorum Amen, katurik ez dago hemen.

